

PROZESU PENALARI

BURUZKO
INFORMAZIO-GIDA

GENERO-
INDARKERIAREN
BIKTIMENTZAT



AURKIBIDEA



SALAKETA 4



PROZESU JUDIZIALA 5

- Zer gertatzen da salaketa jarri ondoren?.....5
- Zer gertatuko da epaitegian?.....6
- Zer da babes-agindu bat?.....8




EPAIKETA 10



EPAIA..... 12

Dokumentu hau Gipuzkoako Genero Indarkeriaren Batzorde Probintzialak landu du eta Arabako Batzorde Probintzialak zein Bizkaiko Batzorde Probintzialak ere bere egin du.

Diseinua eta maketazioa: GEN creativo / Azalaren diseinua: Begoña Paino Ortuzar





SALAKETA

- Salaketa honako hauetan aurkez dezakezu:
 - Ertzaintzaren edo udaltzaingoaren edozein polizia-etxetan.
 - Epaitegian.
- Salaketa jarri baino lehen, abokatu batekin hitz egitea eskatzeko eskubidea duzu.
- Abokatu horren zerbitzuak doakoak dira. Informazioa eta aholkuak emango dizkizu salaketa jartzen duzunean, bai eta epaitegian hasiko den prozesuan ere.
- Garrantzitsua da gertatu zaizun GUZTIA kontatzea, ez bakarrik izan duzun azken eraso fisiko, psikiko (irainak, mehatxuak, apalkuntzak, eta abar) edo sexuala.
- Lagungarri izan dakizuke salatu nahi dituzun gertakariak idatzita eramatea.
- Ez ahaztu hau ere kontatzea: zure seme-alabek ere indarkeria jasan badute, edo zuri gertatu zaizunean bertan bazeuden edo zuri gertatutakoa entzun badute.
- Inportantea da adieraztea gertakarien lekukorik izan den ala ez.
- Helbide berria, telefono-zenbakia edo beste daturen bat sekretuak izatea eskatu dezakezu, salatuak ezagutzen ez baditu.
- Salaketa aurkeztean, babes-agindu bat eskatu dezakezu, bai zuretzat, bai seme-alabentzat edo beste senide batentzat.
- Zeinu-hizkuntzarako edo beste hizkuntza bateko interprete bat eskatzeko eskubidea duzu.

Irakurri salaketa sinatu baino lehen, eta ziurtatu esan nahi duzun guztia jasotzen duela. Zalantzarik baduzu, galdetu.



ZER GERTATZEN DA SALAKETA JARRI ONDOREN?

- Poliziak esango dizu zer egunetan eta zer ordutan joan beharko duzun epaitegira, epailearen aurrean deklaratzeko.
- **Babes-agindu bat eskatu baduzu**, epaitegian deklaratu beharko duzu, hiru eguneko epean gehienez ere, baina ohikoena da salaketa aurkeztu eta hurrengo egunean joan behar izatea.
- **Ez baduzu babes-agindu bat eskatu** eta poliziak ez badizu epaitegira joateko hitzordurik eman, epaitegiak hitzordua emateko zain egon beharko duzu.
- Nahi duzun pertsonak lagundu ahalko zaitu.
- Polizia-etxean egon zen abokatua zurekin egongo da epaitegian ere. Salaketa aurkeztean ez bazenuen abokaturik izan, epaitegian eskatu abokatu bat joan dadila.
- Hau eskatzeko eskubidea duzu: salatuarekin inolako kontakturik ez izatea epaitegiaren barruan.
- Hau eskatzeko eskubidea duzu: epaileak hartzen dituen erabakien berri (salaketa artxibatzea, epaia, salatua espetxera sartzea, salatua espetxetik ateratzea...) posta elektronikoz edo zure etxean jasotzea.
- Hau eskatzeko eskubidea duzu: etxeko sarraila aldatzea, segurtasun-arrazoia tarteko. Sarraila-aldaketa doakoa izango da, epaileak onartzen badu.

Nahi duzun pertsonak lagundu ahalko zaitu.



ZER GERTATUKO DA EPAITEGIAN?

- Gertatutakoaz galdetuko dizute.
- Kasu jakin batzuetan, epailearen aurrean deklaratzeari uko egin ahalko diozu.
Zure abokatuak emango dizu ez deklaratzeko eskubidearen berri.
- Ez baduzu deklaritzen, baliteke salaketak aurrera ez jarraitzea, baina, zer gertakari salatu duzun eta bestelako inguruabarrak nolakoak diren (lesioak, lekukoak, eta abar), nahiz eta zuk ez deklaratu, epaileak salaketa ikertzen jarraitzea erabaki dezake, bai eta epaiketa ere egitea gero.
- Gero iritziz aldatzen baduzu, epaitegira joan zaitezke eta deklaratu nahi duzula adierazi.
- Salatua ez da **INOIZ** egongo zuk deklaritzen duzun bitartean.
- Hauek baino ez dira egongo zuk deklaritzen duzunean:
 - Epailea
 - Fiskala
 - Zure abokatua
 - Salatuaren abokatua
- Gertatutakoaren lekukorik badago, horren berri eman dezakezu, eta dituzun frogak entregatu (telefono-mezuak, argazkiak, grabazioak).
- Mediku forentseak aztertu zaitzake, lesio fisikorik baduzu eta hala nahi baduzu.
- Zuk deklaratu ondoren, salatua galdekatuko du epaileak.
Zu ez zara egongo salatuak deklaritzen duenean.



Honelako toki batean deklaratuko duzu:




- Zuri eta salatuari entzun eta gero, babes-agindu bat eskatu baduzu edo Fiskaltzak eskatu badu, epaileak erabakiko du eman edo ez.
- Babes-agindurik ez emateak ez du esan nahi sinesten ez zaituztenik edo salaketa ikertzen jarraituko ez denik.

Gogoan izan: salatua ez da inoiz egongo zuk deklaratzeko bitartean.



ZER DA BABES-AGINDU BAT?

- Epailleak ematen duen agindu bat da, eta zure segurtasuna, zure seme-alabena edo are zure kargura dauden mendeko pertsonena bermatzen du. Epailleak baino ezin du eman.
- Salaketa polizia-etxean aurkezten duzunean eskatu dezakezu babes-agindua, edota epaitegian, deklaritzen duzunean.
- Gainera, fiskaltzak ere eskatu dezake, edo epailleak berak eman diezazuke inork eskatu ez badu ere.





- Babes-aginduan hauek egin ditzake epaileak:
 - Salatu duzun pertsonari debekatu zuregana, zure seme-alabengana edo beste senide batengana hurbiltzea.
 - Salatu duzun pertsonari debekatu zure lantokira, etxera edo zu egon ohi zaren edo zure seme-alabak edo beste senideren bat egon ohi diren tokietara hurbiltzea.
 - Salatu duzun pertsonari debekatu zurekin, zure seme-alabekin edo beste senideren batekin harremanetan jartzea (telefonoa, posta elektronikoa, whatsapp-mezua...).
 - Salatuaren behin-behineko espetxealdia agindu.
 - Salatuari su-armak erretiratu, baldin baditu.
 - Ertzaintzari agindu zu babestea, bizkartzainekin edo beste bitarteko batekin, arriskua badago.
 - Ertzaintzari agindu zure etxera lagundu zaitzatela, beharrezkoa bada, zure gauzak jaso ahal izan ditzazun.
 - Ertzaintzari agindu salatu duzun pertsonari etxera lagundu diezaiotela, bere gauzak jaso ditzan.
 - Etxeko sarraila aldatzeko baimena eman.
 - **Zure seme-alaben segurtasunerako beste neurri batzuk** agindu (etxebizitza erabiltzeko eskubidea eman, erasotzaileak zure seme-alabei bisitak egitea eten edo mugatu, bisitak profesionalek gainbegiratzea agindu, mantenu-pentsioa...).
- Salatuak ez badu babes-agindua betetzen, polizia jakinarazi beharko diozu.

***Gogoan izan: babes-aginduak zure segurtasuna
eta zure seme-alabena bermatzen du.***



EPAIKETA

- Salatu duzun pertsonak GERTAKARIAK EZEZTATU baditu, epaileak ikertzen jarraituko du salatu duzuna egiaztatzeko. Zenbait proba egitea agindu dezake (lekukoen deklarazioak; mediku forentseak azterketa egitea; whatsappak, mugikorreko mezuak edo posta elektronikoa aztertzea, elkarrizketak grabatzea...).




IKERKETA

Frogak lortzea, hauen bidez:

- Deklarazioak: Salatzailea, salatua, lekukoak
- Txostenak: Medikuntza Forentsea, Psikologia, eta abar
- Bestelako frogak: whatsappak, mezuak, grabaketak

- Hilabete batzuk geroago, ikerketa amaitzen denean, epaiketa bat egingo da.
- Epaietan, berriro ere deklaratu beharko duzu.

Epaiketak «judizio-areto» izeneko sala batzuetan egiten dira. Honako hauek egongo dira bertan:





- Sala edo aretotik kanpo egongo zara deklaratu arte.
- Lehendabizi fiskalak egingo dizkizu galderak; gero, zure abokatuak, eta, azkenik, defentsaren abokatuak.
- Hau eskatu dezakezu: salatua ez ikustea, galderei erantzuten diezun bitartean. Hori horrela, bideokonferentzia bidez deklaratzeari eskatu dezakezu.
- Epaileak erabakiko du bideokonferentzia bidez deklaratu dezakezun (epaitegiko beste toki batetik).
- Zure eskubidea da epaiketa batean parte hartzen duten profesional guztiak errespetuz tratatu zaitzatela.
- Litekeena da akusatuak epaiketa baino lehen onartzea zuk salatu dituzun gertakariak, eta fiskaltzarekin eta zure abokatuarekin zigorrari buruzko akordio bat egitea eskatzea.
- Hala bada, zure abokatuak akordio horren edukiaren berri eman behar dizu, ados zauden jakiteko.
- Akordioa egiten bada (fiskaltzaren, zure eta akusatuaren artean), ez da epaiketa egingo, akusatuak gertakariak onartu ditu-eta, eta epaileak zigor-epai bat emango du. Zigor-epaia lortutako akordioa izango da.

Gogoan izan: epaiketan deklaratzeko duzun bitartean salatua ez ikustea eskatu dezakezu.



EPAIA

Epaiketa egin ondoren, zenbait asteko epean, epaileak epai bat emango du. Honelakoak izan daitezke epaiak:

- **Zigor-epaia:** zigor bat ezarriko zaio salatuari, eta aldi baterako debekatuko zaio zuregana eta/edo zure seme-alabengana, zure etxera eta lantokira hurbiltzea. Aldi horretan, gainera, ezingo da zurekin harremanetan jarri.
- **Absoluzio-epaia:** Ez du salatu duzun pertsona kondenatuko. Horrek ez du esan nahi zure salaketa faltsua denik, froga nahikorik ez dagoela baizik.

Epai horren aurka errekurtsua jar dezake:

- Fiskaltzak.
- Zure abokatuak, ez bazaude epaiarekin ados.
- Kondenatuaren abokatuak.

Errekurtsua izapidetzen den bitartean, zure aldeko aurretiazko babes-agindurik badago, aplikatzen jarraituko da.

Epaiak espetxe-zigorra ezartzen badio, eskubidea duzu jakiteko noiz sartuko den espetxean, noiz izango dituen espetxetik irteteko aldi baterako baimenak eta noiz emango dioten behin betiko askatasuna.

Gogoan izan: absoluzio-epai batek ez du esan nahi zure salaketa faltsua denik, salatutako pertsona kondenatzeko froga nahikorik ez dagoela baizik.
